



Sorkuntzaren

profesional

autonomoak,

etorkizunaz



Eutsiko diogu?

**FERMIN
ETXEGOIEN**

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. edizioa: 2014 azaroan

Maketazioa:

Erein

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko argazkia:

Jonbi

© Fermin Etxegoien

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-882-4

L. G.: SS-1474/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

EUTSIKO DIOGU?

Sorkuntzaren profesional autonomoak, etorkizunaz

Fermin Etxegoien



– AURKIBIDEA –

Ander Lipus.....	9
Estitxu Eizagirre.....	27
Luistxo Fernandez.....	49
Mari Añes Gorostiaga.....	79
Eñaut Elorrieta	97
Miren Amuriza	117
Hedoi Etxarte	141
Maidier Unda	165
Iban Arantzabal	181
Maia Eder Kurutxet	209
Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.....	229
Miren Agur Meabe	253

GALDERA BAKARREKO 12 ELKARRIZKETA

Inoiz baino gehiago lortu den garaian –orain– badirudi, halaber, azkenetan garela.

Nola daramate arestikoa sorkuntzarekin lanean modu autonomoan ari diren profesionalak?

Eutsiko diote ala ez?

Galdera bakarra, euskaldun euskaltzaleari fite –bere burua batere behartu gabe– beste hainbatetan adarkatzen zaiona: eutsiko ote diote –norberaren alor profesionalak ez ezik– bai euskarak bai herriak –edo nazioak– eta baita gizateriak ere?

Eutsiko diogu?

Galdera bakar nahiz adartuari emaniko erantzunek osatu dute liburu hau. Sorkuntzaren profesional autonomoenak dira.

Mintzatuko zaizkigu antzerkia, kantagintza, moda, zinema, literatura, bertsoa, interneta, hedabide... eta baita gaztagile independenteak ere.

Tira, asko al da –gehiegi menturaz– independentzia hitza, hemen eta orain, erabiltzea?

Hemen eta orain, inor ez baita gaztagile guztiz independente, edo independente, Euskaltzaindiak guk denok esatea eta idaztea nahi duen gisan, in-de-pen-den-te, horretaz ere badoa, izan ere, liburu hau, bertan ez baititugu teoriko profesionalen iritziak bilatu eta pilatu, ezta sortzaile amateurrenak ere, kontrakoa bazik: hil bukaeran diru sarrera finkorik, aldez aurretik ziurtaturik, ez duten sorkuntzaren profesional autonomoenak.

Utikan, beraz, funtzionario manifestu sinatzaileak, liburu honetan bestelako bizimodu bati buruz ari baikara, sorkuntzaren profesional autonomoek dutelakoan –haiek ez beste inork– kulturalki gertatzen ari zaigunaren eta gerta dakigukeenaren bizipen erreala.

Horregatik ere, liburu hau idatzia dago elkarrizketetan jasotako euskara mintzatuarekin.

Achtung: elkarrizketak ez dira ehuneko ehun berridatziak izan teoriko fanatikoen koordenaden arabera. Gerta dakioke irakurleari, beraz, terreno out-law batean murgiltzen ari ote den zabaltasun ala estutasun sentipen atsegin ala desatsegina.

Elkarrizketen hasieran ez dago sorkuntzaren profesional autonomoen aurkezpenik.

Denek dakite zeri erantzun behar dioten eta horri lotzen zaizkio, nor bere estiloz eta erritmoz, hasieratik, edo hasi eta berehala. Erantzun bakarra zabaltzen eta adarkatzen doan heinean, irakurleak osa ditzakeelakoan, aparteko zailtasunik gabe, erantzuten ari denaren nortasuna eta lanbidea. Elkarrizketatzailea –ni neu– sartzen da nahi duenean, nahiz eta saiatu naizen nire teoria fanatikoen bitartez testua gehiegi ez kontaminatzen.

Irakurleak nahiago baldin badu aldez aurretik eza-gutu elkarrizketatuaren nortasuna eta lanbidea, elkarrizketa

bakoitzaren ostean biografia bana aurkituko du, argazkiekin hornitua.

Askoz dibertigarriagoa da baina, aldez aurretik oso ondo ez jakitea, nor zertaz ari zaigun.

Liburu hau, azken batean, thriller bat delako.

Ander Lipus

Eutsiko dotsagun?

Nik behintzat badaukat sentsazioa erresistentzia batean bizi naizela, eta ez dauzkadala gauzak batere erraz. Horregatik, normala da galdera –eutsiko diogu?– ikur horrekin bizitzea etengabe, eta horrek eramaten zaitu, igual, beldurrekin bizitzera. Beldurra baino gehiago, malaostiarekin esango nuke. Oso alerta eta halako urgentzia batekin. Urduri. Bizitasun bat ematen dizun egoera normalizatu batek edukiko ez lukeena, bestalde. Egin dudan apustua, ibilbide baten ondoren, euskararen aldeko apustua delako. Hau da, merkatu baten barruan eta geografia jakin baten barruan.

Barkoxetik Balmasedara eta Ondarroatik Tuterara.

Hor barruan egin behar duzu teatroa, eta oso zaila da euskara hutsean zabaltzea. Orduan, apustu hori egiten duzunean, esaten duzu: eutsiko dotsagu. Eta orduan adorea etortzen zaizu, eta bai, eta lortzen duzu, frente desberdinak eraikitzen dituzulako, eta hasten zara konturatzen frente horietan badagoela kultura bat, eta kultura horrek bere idiosinkrasia daukala, eta ez daukala zer ikusirik, edo desberdina izan daitekeela, hautua Espainian aritzea izan balitz.

Euskararen alorrean hori da, azkenean, kontzientziaketa bat, nik ez nuena.

Erdaraz lan egitetik –Madril batean normala denez– Bilbo batera pasa nintzenean elebitasun batean –normala denez, kakotxen artean– mugitzen nintzen. Taldeko erdiak euskaldunak ziren, eta beste erdiak erdaldunak. Nire obrak erdaraz eta euskaraz ziren, eta Euskal Herrirako egiten nuen, baina baita Espainiarako ere, Fábrica de Teatro Imaginario edo Antzerkiolaren bitartez. Nire pentsamendua, nire hezkuntza, eta dena, erdaraz hartua neukan Madriletik.

Niretzat oso inportantea da obra bat zein hizkuntzatan pentsatua izan den. *Yuri Sam* egin nuenean, Antzerkiola Imajinarioarekin, euskaraz pentsatu nuen eta obra hori niretzat euskaraz da, nahiz eta gero erdaraz egin emanaldia.

Baina gero sartzten naiz Berrizera, herri euskaldunago batean, eta oso hurbil nago nire eskualdetik –Markinatik– eta kontzientziaketa lan bat egiten duzu, non euskaraz lan bakarrik egitea erabakitzen duzun.

Orduan, eutsiko dotsagun...

Hamlet egin dugu orain, 40-50 emanaldi. Ezin ditugu gehiago egin eta horrek esan nahi du zerraturik dagoen merkatu bat dela hau. Erdaraz egiten baldin baduzu, egin dezakezu baita 200 emanaldi ere.

Zenbatek eragiten dute euskal kulturari: 6.000 pertsonak?

- Euskararen erabilera krisian dago.
Euskara batua sakabanatuegi ageri da erdararen itsasoan eta, ondorioz, erabileran ez dauka dentsitate nahikorik hiztunak –nolabaiteko jakintza jaso dutenak barnerakartzeko. Gainera, nolabaiteko jakintza duten beste

askotxok, gero eta gehiago, euskalkia hautatzen dute, zenbait eskualdetan –tokian tokiko erabilerari erreparatuta– momentuz bai gordetzen direlako nahiko hizkera dentsoak eta baita ondorioz hiztunentzako erakargarriak ere, dirudienez batua baino erakargarriagoak. Nola daramazue hau guztia?

Egin dudan apustu honetan, askotan, adibidez, euskalkiak erabiltzen ditugu, eta hor konturatzen zara jendea gose dela, euskalkien gose. Euskara batua nahiko hizkuntza berria da oraindik, eta belarria egin behar da. Gurekin ari-zen den Ximun Fuschek esaten du euskaraz entzutea oraindik asko kostatzen zaigula. Orduan guk aktoreok lan egin behar dugu, esaten dugun hori ondo komunikatzeko.

Kodigoak ulertu behar ditu Bilboko batek eta Biarritzeko batek, eta imajinario bat sortu behar da horren arabera. Nire obrak eraman dituzten herrietan, publikoa handitzen joan da. Donostian azken obra lau egunez izan da, hiru egunetan sarrerarik gabe. Zumaia, Azpeitia... sekulako gorakada egin dugu.

Halere, badaukagu beldur hori eta inoiz gertatzen da, ez ulertze hori, baina bada beste fenomeno bat, konstatatzen ari naizena: hegoaldean publikoak gora egin du, iparraldean ostera, behera, eta uste dut gertatu egin dela produktua elebakarrean ematen dugulako eta horrek babilio erantsi bat ematen diolako produktuari.

Elebakarra izanda, jendea beste espiritu batekin doalako ikustera. Dena pentsatua dagoelako euskaratik euskarara. Obsesionatu gabe, ze niri ez zait gustatzen obsesionatzea. Baina uste dut borroka horri eutsi behar dotsagula.

Ruperrek ez du egingo diskoa euskaraz eta erdaraz. Guk zergatik egin behar dugu? Obrak duen dimentsioa kentzen dugu, eta gero betikoa, obra bera erdaraz eta euskaraz eginez gero, jende asko, euskaldunak barne, erdarazkoa ikustera doalako, baina aukera bakarra jartzen duzunean, euskaraz ikusteko, erdaldunak inkluso, voy a ver lo que hacen, porque, aunque no entienda, de algo me enteraré, eta enteratzen dira.

Horregatik, oso inportantea da kontzientziaketa maila hori, nik ez neukana. Pentsatzen nuen 90 urterekin oscarra irabaziko nuela eta orduan itzuliko nintzela Euskal Herrira, eta 25ekin etorri nintzen eta azpitik egin behar izan dut lana.

- Euskararen aldeko lana, beraz, antzerkiaren aldekoaren bitartez...

Aurrekoan bilkura eduki nuen, UEMAk antolatuta, euskararen erabileraren kontura artistoi deitu zigutelako, gogoetatzeko. Adibidez EITB Kultura etortzen zaizu eta nahi du zuk euskaraz eta erdaraz egitea. Nik erabakiak hartu ditut, sare sozialetan euskaraz baino ez idaztea. Gero proposatu zuten manifestu bat egitea eta sinatzea, baina ni ez naiz horren laguna. Nire aurpegiak zerbait aldatuko balu!

Ikusiko banu, adibidez, holakoak sinatzen dituzten Athleticeko jokalariaik euskaraz berbetan, prentsaurrekoetan...

Badakizu, egon zaitezke beti firmatzen, gure Euskal Herri maitatu honetan.

Gero, nire bigarren apustua da teatroa berez den euskarria. Teatrotik bizi ahal izatea batez ere. Hortik bizi naiz

momentuz, baina lan asko egiteak exijitzen du, oso esparru desberdinetan. Teatroarekiko lehen neukan ikuspuntua agian askoz utopikoagoa zen. Garai batean, Lorcak esaten zuen antzerkia herri baten barometroa dela: zenbat antzerki eta ze antzerki egon, herri horren tenperatura espirituala neurtzen omen da. Baina zergatik ez alpinismoaren arabera? Ondorioz, gogoeta hori erlatibizatu egiten dut orain, edo hartu diot beste distantzia bat.

Ez dakit edadea den edo beste perspektiba bat. Ez duzu pentsatzen teatroaz ez dakit zer aldatuko duzunik, baina bai pentsatzen duzu, gutxika-gutxika eginda, gauza praktikoetan arituz... Ni kexatzen nintzen: jendea ez doa teatrorra! Ba jendea ez badoa teatrorra, jendeak ez badauka teatroarekiko hezkuntzarik, abiatu zaitez zu zeu hezkuntza hori zabaltzen. Aulestiko haurrekin egongo naiz bihar eta etzi, teatroa irakasten. Markinan ere antzerki talde bat daukat. Lan handia egin behar duzu musu-truk, gero beste emaitza hori, jendea teatrorra joatea, lortzeko. Orain arte ez da hezkuntza edo transmisiorik egon.

Gero, hirugarren pilarea da aurreko biak batzen dituen nire enpresa, gure enpresa.

Lau gaude, lau gabilta arte eszenikoen plataforma deritzagun horretan, eta batzuetan, jeje, gogoia ematen dizu pikutara bidaltzeko, dituzun sentimenduengatik, artearekiko daukazun sentimenduagatik. Daukazun presioagatik, azkenean presio bat delako, lau soldata mantentzea. Lau pertsona bizi ahal izatea antzerkitik... eta jartzen zaizkizu duda asko. Niretzat hor ere badator galdera: eutsiko diogu?

Kuriosoa da, baina duela astebe hor nenbilen nire sozioarekin: jaitsiko ditugu soldatak, jaitsi beharko ditugu... eta orain deitu didate gauza baterako. Beti gabilta kinka

horretan, mantenduko ote garen. Kultura –antzerkia, kasu honetan– oso lotua dagoelako subentzioetara –politika jakin batera–, eta lotua egoteak eramaten zaitu bortxatua egotera, zure sorkuntzak dauzkan kaosa eta independen-
tzia bortxatzera.

- Kaosetik zatoz... eta enpresario bilakatu zara.

Egunero ari naiz hori pentsatzen... Antzerkiola Imajina-
rioa kooperatiba modura kudeatzen genuen: bi langile eta
gero aktore pila bat... eta eman dudan pausorik garran-
tzitsuena, kooperatibaren formula hori kentzea izan da. Ez
kooperatiba formula beragatik, baizik eta guk eduki ge-
nuen ideia komunista hori –aktore guztiak kristoren sol-
datarekin– ez delako bideragarria.

Guk orain talde modura hitz egiten dugu eta uste dut
horrek ekartzen duela gaur egun daukagun emaitza, an-
tzerki mailan, arte drama bezala. Nola ari garen funtzio-
natzen. Jende guztiak horrela begiratzen digu eta txalotzen
du, mekanika batean sartu garelako, non eta mekanika ho-
rrek funtzionatzen duen. Hau da, zein garrantzitsua den
produktu bat ondo produzitzea eta ondo saltzea. Pertsona
bat daukazunean, bakarrik produktu hori saltzen, emaitzak
dira, adibidez, orain izaten ari garen jirak.

Alde artistikoa bermatzea erraza da. Aktore bat behar
baldin baduzu, badaude aktore asko. Musikari bat behar
baduzu zure antzerki obrarako, milaka daude. Baina an-
tzerki ekoizpenean lanean ari direnak oso gutxi daude. Or-
duan, plataforma hori mantentzen duten eta ahalbide-
tzen duten hiru pertsona aurkitzeko zortea eduki dut eta
ezin naiz kexatu ezelan bez.

Artista moduan, batzuetan esaten dut: ez daukat ideiarik, orain beharko nuke hamar liburu irakurtzeko denbora eduki, eta gauzak gertatu. Artistok daukagun mundu hori, ezta? Zerbait edukitzeko gero kontatzeko, baina horrelako dinamika batean bazaude, azkenean esaten duzu, baina zer ari naiz egiten?

Oso konplikatua da.

Gaur, hain justu, andrearekin egon naiz horretaz. Emaztea kubatarra daukat, bera ere artista da, baina musikari karrera utzi behar izan du nirekin egoteko, eta ez dakigu nola kudeatu hori. Hogeita bost urte edukita Kubara joango nintzateke, baina orain ezin dut dena pikutara bota. Izan nintzen bertan, unibertsitatean klaseak ematen, dena debalde. Ez da erraza, baina hori da zure hautua. Eutsiko diot pertsonalki?

Nire duda handia, gaur zurekin gelditzeko, hori zen, gaur neukalako egun libre bakarra, baina tira, elkarrizketa etxean izanda... Bai, beti daukat zerbait, gaur gidoi bat irakurri behar dut –neska batena, oso polita: nahi du pelikula bat egin–, baina baita antzerki obra bat ere, neuk zuzenduta.

Halako erabakiak askotan hartu behar, hau ezin dut eta hori bai.

Nire hurrengo obra 2015eko azaroan da. Nire izenean prestatzen ari naizena. Bi urte eta erdiko aurretiaz egiten dut. Gai naiz erritmo honetan mantentzeko? Zorionez, dei asko edukitzen ditut beste konpainia batzuetatik. Egingo zenuke hau honako fetxa honetan Arriagan, ezdakitzer eta ezdakitnor? Holako eskaintzak, asko izaten ditut. Deitzen dizute eta egiten duzu.

Hau da, ni naiz aktore, baina banaiz enpresario ere. Gure enpresan ehuneko laurogeia soldatetan doa eta hori

gauza ederra da. Duela urte eta erdi, lau soldata. Bi sozio gara eta bi neska hartu ditugu. Jornada osoan daude jada.

Nire sozioak krisia eduki zuen eta utzi egin zuen. Nik hartu nituen bi neskak. Sozioak erakutsi zien: hau hola doa. Gero sozioa ondo jarri zen, osasun arazoak eduki dituelako. Esan nion: ba zer egingo duzu, hau de puta madre egiten duzu-eta... Berriro sartu da eta lau gara.

Xabino Alkorta, donostiarra, kazetaria, baina gero ofizioak eraman du elektrizista izatera.

Beraz, orain nirekin etortzen da jiran eta bera da teknikoa. Esparru guztiak dominatzen ditu. Emanaldi batek daukan montajea, nahiz eta hori denok egiten dugun. Guk, aktoreok.

Goizeko hamarretan joan, goizez dena montatu, arratsaldean fokuak probatu. Egin alemana bat –obraren errepikapena–, notak hartu –zuzendariaren notak–, aurreko emanaldiarenekin alderatu, gero beroketa bat, jantzi, emanaldia egin eta desmontatu.

Hau da: hamabi hamalau orduko jornada izaten da gurea.

Enpresa modura, gure hilabete aktiboenak urria azaroa izaten dira. Gero, otsaila martxoa apirila... Zergatik? Egiten dugun teatroa barnekoa delako, ez da kale antzerkia. Aurtengo martxoan hamaika emanaldi edukiko ditugu *Hamletekin*, eta apirilean sei. Bitartean, ADEL (Aules-tiko antzerki topaketak) antolatzen ditugu eta egun osoa gaude han. Formakuntza tailerrak ematen ditugu eta gauez antzerki lanak, herriarentzat. Jaialdi bat euskaraz.

- Jakin genezake zenbat diru egin duzuen *Hamlet* obra arrakastatsuaeren bitartez?

Demagun *Hamletekin* orain arte daramatzagula, gutxi gorabehera, 6.000 ikusle eta demagun hamarna euro ordaindu dutela. Horrek esan nahi du 60.000 euro sarreratan. Ez dakit zenbatean dagoen gure katxea, 3.500ean inguru... Ehun pertsona baldin badatoz emanaldi batera, hamarna euro ordainduta, 1.000 euro irabazten da sarre-ratan. Berrehun baldin badatoz, gure media hori izaten ari da eta, ba 2.000 euro inguru. Horrek esan nahi du publikoak –ez diru publikoak, baizik eta ikusleek– gure katxe-aren ehuneko berrogeita hamar baino pixka bat gehiago ordaintzen duela. Herriak, aretoak, beste portzentaje bat ordaintzen du, eta beste bat Eusko Jaurlaritzak, eta beste bat Diputazioak. Orduan, ez da hain defizitarioa eta dirua mugitzen du.

Gure diru iturri potoloenak emanaldiak dira. Dirua benetan emanaldietan irabazten dugu. Dirulaguntzak sopo-ortekak dira, finkoak, guk beti irabazten dugulako berdin, gure katxea. Normalean katxera goazelako. Batzuetan ez, batzuetan katxea eta sarrerak egiten dugu, katxe txikiago bat eta sarrerak. Beste batzuetan, emanaldia askoz diru gutxiagotatik, non enpresaren irabazi industrial hori ere ez dagoen.

Gero, lan taldearen arabera egiten dugu diru zatiketa. Aktore bakoitzarekin ez dakit zenbat joango den, 300 bat euro edo.

Gure formulak, iparraldekoak ere ari dira, Frantziako sistemarekin. Desberdina, askoz hobea, intermitenteak direlako.

- [Oharra: Intermitenta edo intermitentea izatea, Frantzian: artista zara, eta urtean hainbat emanaldi –administratibotik

eskatzen zaizun kopurua– justifikatzen baldin baduzu, gero, emanaldirik ez daukazunerako, baduzu langabezia moduko zerbait kobratzeko eskubidea. Horregatik deitzen zaie “intermitentak” sortzaile horiei, batzuetan piztuta daudelako eta besteetan itzalita, nahiz eta beti zerbait kobratzen ari diren, dela emanaldien bitartez dela Estatutik jasota. Iparraldeko euskal artista askok badute estatus frantses hori, Espainian existitzen ez dena].

Aktuazio kupo bat egin ondoren lasai egon ahal dira, eta badaukate paroa, nolabait esateko. Han garrantzia ematen zaio artista bat sorkuntza prozesuan pagatua izateari, eta hori hemen ez da posible. Gu gara artistas y toreros, eta zezenaren aurrean ez bazaude, ez zaude ezer egiten.

- Bertsolariak teatro ote?

Emanaldiak egin ditut, eta asko, bertsolariekin. *Erregea eta bufoia*, adibidez. Inongo subentziorik gabe. Euskaraz ari-tzeak eramaten zaituelako beste esparru txikiago batzuetan lan egitera. *Erregea eta bufoiarekin* egin nituen 75 emanaldi edo 80, zergatik? Iritsi ahal zara La Puebla de Labarca batera, eta egiten genituen bertso afariak ere!

- Faktura beharrean, kafe konpletoa?

Egia da, bertsolarien mundua asko mugitzen da beltzean. Baina bueno, organizatzailearen arabera. Formatu txikiko gauzak dira. Kultur etxeetan egiten direnak. Ez beltzean, noski. Herri batzuetan ez dagoelako antzokirik. Joan zaitetz

Erratzura, Errezilera... Kultur areto txikitxo bat dago eta han egiten duzu *Erregea eta bufoia*. Bertako udalak oso gustura ordaintzen dizu. Ezin duzuna da *Hamlet* batekin joan. Bueno, guk bai. Hori da pixka bat gure politika, eta asko ikasi dugu iparraldekoekin. Autonomoak izaten.

Joaten gara antzoki batera edo frontoi batera eta gure fokuak eramaten ditugu. Dena da gurea, egin dugun inbertsioa. Musika ekipoa ere bai, dena pack batean. Bertako teknikariak etortzen dira gugana: zertan laguntzen ahal dizuegu? Ezertan ere ez. Esan non dagoen entxufea, eta guk entxufatuko ditugu kableak.

- Baina arrakasta komertziala ere beharrezkoa izango da...

Gero eta kontzienteago gara.

Ni mojen eskolan ikasitakoa naiz.

Inork, bizitza puta osoan, ez zidan ekonomiari buruz ezer irakatsi. Ez ninduten hezi. Bai gogoratzen dut, Lauaxeta ikastolan, apaiz batek esaten zuela –Gregorio izeneko bat, latina irakasten zuen– bizitzan ze inportantea den norbera enpreddorea izatea eta norberak enpresa bat sortzea. Iparraldean eta Frantzian ekonomia ematen dute, matematikak bezala, baina guk ez dugu inongo hezkuntzarik jaso.

Gure artegintzaren ikuspuntuan ere ez gaude hezita, are gutxiago ekonomian. Horregatik, askorentzat, guk egiten duguna pailazoarena egitea da, kitto. Ez zaie buruan sartzen furgoneta bat hartzen dugunik.

Pertsona horiek alfonbra, azala baino ez dute ikusten, ez alfonbraren azpian dagoena.

- Orduan, zein da konklusioa: kultura subentzionatua super krisian dago ala ez?

Kuriosoa da... Inoiz baino lan gehiago daukat. Pertsonalki, ez dut pentsatzen kultura krisian dagoenik. Egia da proiektu jakinetan momentu latzak eduki ditugula: Aulestiko topaketetan, aste oso batengatik, udalak ehuneko ehuna guri ordainduta, 20.000 euro formakuntza eta obregatik, duela bi edo hiru urte ehuneko 40 baino ez zigula ordainduko esan zigun udalak, eta esan nien: baina ez duzue Jaurlaritzan eskatu inoiz? Erantzuna: bai, baina deialdi orokorretan baino ez.

Orduan neu Diputazioarekin eta Jaurlaritzarekin batzartu nintzen, eta dirua lortu genuen.

Indartzen doan proiektu baterako, Aulestikoa ere industria baten barruan dagoelako. Diru publikoak erabiltzen baldin badira pinuak jartzeko, kultura ere subentzionatu beharko da.

Aulesti: egun batez *Berriako* portada bilakatzen zara. Notizia on bat, Aulesti bat euskal antzerkiaren irla bilakatzeko delako pazko astean. Euskal Herri osoko antzerki ikasle eta irakasleak, erreperkusio ekonomiko batekin. Ez zegoen besterik eta orain txanpiñoiak bezala hasi dira zabaltzen honelako jardunaldiak.

- Baina dirulaguntza zuk jasotzen baldin baduzu, beste norbaitek ez du jasoko...

Ni saiatzen naiz etsai asko ez edukitzean, baina egia da ez dagoela formularik denei laguntzeko eta horrek eramaten zaitu konpetibitate batera.

Deitu zenidan egunean Jaurlaritzatik gentozen. Bi batzar eduki genituen hango teknikariek, jakin nahi genuelako zergatik gelditu ginen “compañías consolidadas” deitzen duten multzotik kanpo. Barruan baldin bazaude, bi urtez lasai bizi zaitezke, 100.000 euro ematen dizute-lako. Baina diru hori lau konpainiak eramaten dute eta beste bost kanpoan gelditzen dira.

Gu kanpoan gelditu ginen, eta konparatiba guztiak ikusten egon ginen. Alde subjektiboak eta objektiboak baloratzen dira: alde subjektiboa %51 da eta gure alde geneukan, baina ez horrenbeste alde objektiboa... eta galdu egiten genuen. Kontua da alde objektiboak ez duela baloratzen zer egiten duzun, Olentzeroren kabalgata bat ote den ala *Hamlet*. Fakturazioa, handiago baldin bada, handiago da eta kitto. Hau da: euskararen erabileran bigarren geunden, egiten dugun guztia –lehen tokian ageri zen enpresak ez bezala– euskaraz egiten dugun arren!

Euskara hutsean lan egiten dugunak gara gu eta Mikel Martinez eta Patxo Telleria.

Euskara-erdaraz, ordea, askotxo...

Txalo konpainia, adibidez: erraza zaio, nonbait, erdarazko obra arrakastatsuen eskubideak lortzea euskaraz egiteko.

Kultur Maratila festibala euskara hutsean egiten dugu Leioan. Guk egin eta kudeatua. Ondorioz, konpainia residentea gara bai Leioan eta bai Aulestin. Azken hau hippyagoa bestea baino. Aulestiko konbenioa dugu eta baita Leioakoa ere, zeinaren bidez helbide fiskala eta bulegoak, almazena eta antzoki bat erabil ditzakegun. Horrek gauza asko ahalbidetzen dio konpainiari. Trukean, Arte Dramak hortik zehar eramaten du Kultur Leioa

izena. Maratila antolatzen dugu eta Umore Azokan laguntzen dugu. Baloratzen gabilta, herrira begira formakuntza ematen hastea ere, antzerki tailerren bitartez.

Mekanika bat izan arren, gure lana oso kaotikoa da.

Senperera joan nintzen atzo, hango talde amateur batekin entsaio bat egiteko, Telesforo Monzonen *Hazparneko anderea* zuzentzen nabilelako. Klasiko bat. Horrek esan nahi du lan handia eta diru gutxi, enpresaren kontabilitatean sartzen dena. Orduan baloratu behar dugu, lan horrek dirua emango duen ala ez. Bihar eta etzi, Aulestiko umeei klaseak eman, kobratu gabe. Baina interesatzen zaigu.

Senperen 3.000 euro kobratuko dugu. Urrian estreinatuko da, baina bitartean astelehenero Senpereraino, gasolina geuk ordainduta. Beste gauza batzuk baloratzen ditugu.

Iparraldea desberdina da oso.

Han antzerkiak badauka komunio, akontezimendu zentzu bat. Beste modu batean sozializatzen dira, seguruenerik euskaldunak gutxiago direlako, Lukuk esaten duen bezala.

Lukuren borroka da, nola antzerki profesionalak, Frantziatik etorritakoak, euskarazkoa jan duen. Hemen gertatu ez dena, noski, hemen ez zegoelako ezer, kenduta Markinan egiten diren inauteriak eta hartza, gauza parateatral bakarra. Hemen, bertsoak gehiago irau du. Herri batzuk ez dira batere antzerkizaleak, baina joera gehiago daukate musikarako, kanturako.

Iparraldean, orain, Mixel Brucks bat, 80 urteko aktorea...

Bere garaian Matalaz egin zuen Baionan, non eta gu, euskaldunok, orain ez gaituzten kontratatzen. Iparraldean

antzerkia behera doan seinale, hegoaldean gora doan heinean. Halere, nik sentitzen dut konpromiso etiko eta politiko hori, iparraldean teatroa egitearena, errealitate horretan aritzekoa. Mixel Etxekoparren Xiru jaialdian Sarriren poema batzuk irakurtzeko, adibidez. Horrek eraman nau Xiberoko mugimendu kulturala ezagutzera: Maddi Oihenart, Gonzalo Etxeberria...

2015ean, bi obra zuzenduko ditut: Monzonena Senperen eta beste bat, modu semi-profesionalean, Xabier Mendigurenen *Amodioaren ziega*. Kartzelan den bikote baten bis a bis esperientziak.

Baita zinemarako ideia bat ere, Aulestiko topaketak eta Leioakoak... eta nire obra nagusia: *Etxekoak*, Jon Gerediagaren testua eta bion arteko dramaturgia.

Aktoreak: Maika Etxekopar (Mixelen alaba), Kristian Etxaluz (*Sagarren Denbora* idatzi duena) eta Jabier Barandiaran.

Inmigrazioaren gaia ukitu nahi dut.

Nire emaztearekin ezkontzea izan den jaleo guztia.

Gastua, absurdokeria.

Ander Lipus

(Markina-Xemein, 1971). Madrilgo William Layton Antzerki Laborategian egin zituen lehen ikasketak, eta Madrilen zazpi urtez lanean egon ondoren, Bilbora itzuli eta beste artista batzuekin Mina espazioa sortu zuen. Harrezkero, bere ibilbidea antzerki ikerketa eta esperimentazio-ara bideratu zen.

1998an, Antzerkiola Imaginarioa taldea sortu eta aktore eta zuzendari lanetan aritua. Antzerki antropologian aditua, zenbait ikastaro eta antzerki eskoletan irakasle izan da.

Indiako kathakali antzerki-dantzak Kalamandalam Haridasan guruarekin ikasia eta mendebaldeko tradiziozko antzerkian aditua.

Aulestiko topaketak, ADEL eta Leioako Kultur MARRATILA zuzentzen ditu.

Egun, ARTEDRAMAko zuzendari artistikoa da, eta sortu berri duen Huts Teatroa zuzentzen du.



